

# EUSKARAREN Berripapera

2001, Hizkuntzen Urte Europarraren ildotik

## Euskara Parisko Expolangues azokan Paris eta Londreseko euskara-eskolak sendotzeko egitasmoa

**H**izkuntza, kultura eta kultur harremani buruzko Expolangues erakusketan izan zen euskara, Parisen, Eusko Jaurlaritzaren stand baten bidez. Erakustaldi-azoka urtarrilaren 31tik otsailaren 4ra izan zen Frantziako hiriburuan. Aurten, Hizkuntzen Urte Europarra dela eta, Expolangues-ek garrantzi berezia izan zuen: Parisko azokak Hizkuntzen Urtearekin bat egin zuen eta Europako hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntzen irakaskuntzarekin lotutako gaiak izan zituen ardatz. Euskararen erakustokiak ere euskarari buruzko materialaz gain helduentzako euskararen irakaskuntzaren berri eman zuen.

Expolangues-en inguruan eta 2001 Hizkuntzen Urte Europarrarekin loturiko beste ekintza baten barruan, HABE erakundeak abian jarri duen plan berria ere aurkeztu zen. Izan ere, Euskal Herriatik kanpo helduentzat ematen diren euskara-eskolen garapenerako planaren aurkezpena egin zen Paris eta Londreseko euskal etxeetan.

### Atzerriko euskara-eskolak

2001 Hizkuntzen Urte Europarraren barruan antolatu den Expolangues-en itzalean, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta HABE erakundeak Urte Europarraren filosofiaren barruan antolatu duten Euskal Herriatik kanpoko euskara-

-eskolen sendotze plana Paris eta Londreseko euskal etxeetara hedatu zuten. Xabier Aizpuruak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, eta Jokin Azkuek, HABEren zuzendari orokorrak, euskara-eskolen sendotze plana aurkeztu zuten Londres eta Pariseko euskal etxeetan.

Plan honen bitartez Europako hainbat hiriburutan eta Ameriketako hiri eta herri desberdinetan helduentzat ematen diren euskara-eskolak sendotu nahi dira eta horretarako eskolak laguntzeko eta sustatzeko babesa eskaintzen duten euskal etxeekin hitzarmenak sinatu ditu HABE erakundeak.

Euskal Herriatik kanpoko euskara-eskolen garapenerako plan honetan teknologia berriek paper garrantzitsua izango dute. Batetik, irakasleak eta ikasleak beren artean komunikazioa hobetzeko HABENET sarea ezarriko da euskal etxeetan, eta bestetik, HEZINET autoikaskuntzarako multimedia programa ere martxan jarriko da irakasleak bere kabuz euskara-maila hobetzeko, edota ikasleak tutore baten bidez euskara ikasteko.

2001. urtean, arian-arian, plana Europan (Madril, Bartzelona, Valentzia, Malaga, Paris, Londres) eta Ameriketean (Estatu Batuak, Argentina, Uruguai eta Txile) jarriko da indarrean. Egun, munduan zehar, 1.100 lagun baino gehiago ari dira euskara ikasten helduentzako euskara-eskoletan, gehienak euskal etxeen inguruan.

## aurkibidea

- 1 • Euskara Parisko Expolangues azokan

- 2 • Pertsonajea:  
Joxe Mallea-Olaetxe

- LABURRAK:  
Bizkaiko Ingeniarien Elkargoaren idazlan-saria
- AGENDA:  
"Bizkaiera: geure ondarea"  
Ikazoka 01, martxoaren 15etik 18ra

- 3 • Deialdiak  
• Korrikaren 12. aldia

- 4 • Euskaigintza deialdiaren erabakiak (II)



## Laburrak

### Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren idazlan-saria



Euskal Idazlanen 5. saria antolatu du Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargoak. Bost mailatan banatuko dira lehiakideak: 9 urte arteko ikasleak, 10-12 urte bitartekoak, 13-15, 16-20, eta 21 urtetik gorakoak. Ipuina, olerkia edo narrazioa osatu ahal izango da, gai librean. 2001eko martxoaren 15 baino lehen aurkeztu behar dira idazlanak, Elkargoko egoitzan (Mazarredoko zumarria 69, 2 / 48009-Bilbo).

Euskal Idazlanen 5. saria antolatu du Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargoak. Bost mailatan banatuko dira lehiakideak: 9 urte arteko ikasleak, 10-12 urte bitartekoak, 13-15, 16-20, eta 21 urtetik gorakoak. Ipuina, olerkia edo narrazioa osatu ahal izango da, gai librean. 2001eko martxoaren 15 baino lehen aurkeztu behar dira idazlanak, Elkargoko egoitzan (Mazarredoko zumarria 69, 2 / 48009-Bilbo).

## Agenda

### "Bizkaiera: geure ondarea"

Gernikako PAT-ek (Pedagogi Aholkutegia) bizkaierari buruzko jardunaldiak antolatu ditu martxoaren 19 eta 20rako "Bizkaiera: geure ondarea" lemapean. Besteak beste, bizkaieraren egoera eskolan, komunikabideetan eta administrazioan aztertuko da.

### Ikazoka 01, martxoaren 15etik 18ra

Durango hezkuntza- eta berrikuntza-azoka, Ikazoka, martxoaren 15etik 18ra egingo da aurrean. Hezkuntza- eta kultura-munduarekin lotuta dagoen hainbat erakundetatik sortutako proiektu honek euskararen munduak orain arte jorratu dituen arloez gain, beste esparru batzuetara ere hedatu nahi du gure hizkuntzaren eragina. Egitarraren arabera, Javier Etxeberria filosofoaren hitzaldiak irekiko du azoka, teknologia berrien gaineko gogoeta eginez. Bestalde, irakurzaletasuna, hezkuntzaren euskalduntzea, erreforma, eta ikerkuntza nahiz enpresa landuko dira hainbat saiotan.



## Pertsonajea

### Joxe Mallea-Olaetxe

#### EEBBetara artzain joan ziren euskaldunen historia lertxunetan



EGUNKARIA

Joxe Mallea-Olaetxe (Munitibar, 1940) historia irakasle da Reno-Nevadako Unibertsitatean. Duela 40 bat urte apaiz joan zen EEBBetara eta, harrezkero, bertan eman du bizia. Euskara eta euskal kultura izan ditu kezka eta, oraindik orain, EEBBetako mendebaldera joan ziren artzainek arboletan

egindako marrazkiak aztertu ditu liburu batean: *Lertxunen bidez hizketan*.

Gaia ez du oraingoxea Mallea-Olaetxe irakasleak. 1968an ikusi zituen lehen aldiz artzainek lertxunetan egindako lanak, artean Elkon (Nevada) zela. Hogei urte ere joan ziren atzera antzeko marrazkiak ikusi zituenerako: "Renoko mendietan ere marrazki beretsuak aurkitu nituen eta horrek jakin-mina berritu zidan. Harrezkero, Nevadan ez ezik, Kalifornian, Idahon, Washington estatuan, Arizonan, Montanan eta beste hainbat estatutan ere aurkitu ditut lertxunetan egindako irudiak".

#### Lertxunetako irudiak eta artzainen bakardadea

Irakasle honek izen berria ere asmatu egin du artzainek mendian egindako lana adierazteko: "lertxumarrak", hau da, lertxunetan egindako marrazkiak adierazi nahirik. Lertxumarrak, Mallea-Olaetxeren hitzak erabiliz, artzainen bizimodua erakusten dute eta, oroz gain, bakardadea eta herrimina. Artzainen izen-deiturak dira gehien-gehienak, bai eta emakume-irudiak ere. Sarri ageri da jaioterriaren izena idatzirik, data eta guzti. Horrek, jakina, historia liburu bihurtzen du basoa.

Egun, 200.000 lertxun baino gehiagotan ageri dira euskaldunek egindako marrazkiak. Dena dela, Mallea-Olaetxe beldur da, arbolak laster ez ote diren eroriko eta, ondorioz, usteldu eta betiko galduko. "Horregatik saiatu naiz lertxunak filmatzen, euskaldunek EEBBetako mendebaldean dugun historiaren lekukotasunak gal ez daitezten. Lortu ere egin dut neurri handi batean".

## DIRULAGUNTZA DEIALDIA

Euskarazko proiektuak, komunikabideak eta entitateetan euskara-planak garatzea dira dirulaguntzen helburuak

### EUSKALGINTZA DEIALDIA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko dirulaguntzak eskatzeko deialdia egin du. Guztira, 134.000.000 pezeta / 805.356,22 euro izango dira dirulaguntzetarako. Ondoko programak, proiektuak, jarduerak edo produktuak izan daitezke dirulaguntza-gai:

- Euskararen ondarea (kantua, bertsoak, euskalkiak, etab.) jaso, gorde eta gizarteratzeko egitarauak: 17.000.000 PTA / 102.172,06 euro.
- Euskaraz egindako materialak sustatzeko eta bideragarriago egiteko ekimenak edo ekintza-programak, batik bat, haur eta gazteentzat prestaturikoak: 65.000.000 PTA / 390.657,87 euro.
- Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitarauak (ekintzak, proiektuak eta produktu berriak): 12.000.000 PTA / 72.121,45 euro.
- Bestelako egitarauak: 30.000.000 PTA / 180.303,63 euro.
- Zabalkunde handiko biltzarretan, jardunaldietan eta ospakizun berezietan euskararen presentzia bermatzeko ekimenak: 10.000.000 PTA / 60.101,21 euro.

### KOMUNIKABIDEETARAKO DIRULAGUNTZAK

Kultura Sailak komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautu du. Horretarako, guztira, 622.000.000 PTA / 3.738.295,29 euro banatuko dira.

Lagunduko diren jardun- edo egitasmo-motak hauek dira:

- Euskararen esparru geografiko osoko prentsa idatzia, hau da, tiradaren %25 edo gehiago argitalpena kaleratzen den probintziatik at banatzen duena: Eguneroko prentsa (A multzoa), Astekariak (B multzoa), Haur- eta gazte-aldizkariak (C multzoa), Bestelako aldizkariak (D multzoa). 430.000.000 PTA / 2.584.352,05 euro banatuko dira lau multzo hauen artean.
- Euskal Autonomia Erkidegoko toki-aldizkariak (herri, udalherri edota eskualdekoak), tiradaren %75 edo gehiago argitaratzen den probintzian bertan banatzen dutenak. (E multzoa: 55.000.000 PTA / 330.556,66 euro).
- Irratiak (F multzoa: 25.000.000 PTA / 150.253,03 euro).
- Euskarazko herri-telebistak (G multzoa: 75.000.000 PTA / 450.759,08 euro).

- Multimedia-taldeak sendotzeko edota euskarazko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sustatzeko egitasmoak (H multzoa: 37.000.000 PTA / 222.374,48 euro).

### EUSKARA GARATZEKO DIRULAGUNTZAK TOKI-ENTITATEENTZAT

Kultura Sailak toki-entitateei zuzentzen zaien 2001eko dirulaguntza-deialdia egin du. Horren xedea da Euskadiko Autonomia Erkidegoko toki-entitateei eta hauen menpeko edo hauei lotutako enteei hizkuntza-normalkuntza zerbitzuak eratu edo sendotzeko eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia entitate edo enterean esparruan garatzeko dirulaguntzak ematea.

Hizkuntza-normalkuntza zerbitzuaren egiteko nagusia entitatearen jarduketa eta arlo ezberdinetan euskararen erabilera sustatzea izango da, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko.

Horretarako dirulaguntzetan gehienez ere 100.000.000 pezeta (601.012,10 euro) erabiliko da.

### EUSKARA-PLANAK ENTITATE PRIBATUETAN

Entitate pribatuetan euskara-planak garatzeko dirulaguntzak ematea arautu du Kultura Sailak. Dirulaguntza hauek, 2001 eta 2002 ekitaldietan, euskara-planak gara ditzaten sektore pribatuko entitateei zuzendurik daude.

Euskara-planen bidez, entitatearen kanpo- eta/edo barne-harremenen artean hiru urteren buruan euskaraz bideratuko direnak zehaztuko dira. Horrenbestez, ezarritako helburuak betetzeko beharrezkoak diren neurriak ere aurreikusiko dira bertan, bai eta planaren komunikazio eta jarraipenerako baliabideak ere.

Helburuak zehazte aldera, hiru eredu aurkeztu dira bertan: lehenengoa, kanpo-harremanetako helburu gehienak hartzen dituen; bigarrena, kanpo-harremanetako helburuak indartu eta barneko harremanetako zenbait helburu hartzen dituen, eta hirugarrena, kanpo- eta barne-harremanetako helburu guztiak hartzen dituen.

Eredu bakoitza, berriz, entitate osoan, entitatea osatzen duten ataletako batean nahiz batzuetan garatu ahal izango da. Halaber, atal ezberdinetarako eredu ezberdinak aukeratu ahal izango dira.

Entitateek, hiru eredu horietako bat aukeratu ordez, zerrendako helburuetatik batzuk hartu eta plan propioa egiterik ere izango dute.

Helburu hauetarako 131.171.048 pezeta erabiliko da (788.353,88 euro).

## Korrikaren 12. aldia

Gasteizen hasiko da martxoaren 29an eta Baionan bukatuko apirilaren 8an

Martxoaren 29an hasiko da Korrikaren 12. aldia. AEK-k antolatu ohi duen euskararen aldeko ekitaldi handia Gasteiztik irtengo da aurtien, eta Baionan bukatuko da apirilaren 8an. Ordurako 2.230 kilometro egingo ditu eta 230 herri baino gehiago zeharkatuko. Remigio Mendiburuk asmatu zuen lekukoaren kopia Juan Gorritik egin da, orain bi urte bezala, eta barruan gorderik izango duen mezua ez da azken eguna arte irakurriko, Baionan.



## Euskgintza deialdiaren erabakiak (II)

Aurreko alean hasitako bideari jarraiki, Euskgintza deialdiaren erabakiak osatzen dira ale honetan. Honenbestez, C, D eta E multzoetako proiektuen berri ematen da orain.

## C MULTZOA: Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitarauak.

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
Arrasate Euskaldun Dezagun	Itzulpen laburren sariketa	84.112
Arrasate Euskaldun Dezagun	Arrasate Literatura Lehiaketa	50.000
Barbaro Elkartea	Umeentzako liburuen gida	216.000
BIGE, Bizkaiko Gurasoen E.	Ibiltzen: Euskaraz irakurzalet.	700.000
Bizkaiko Ikastolen Elk.	7.a: Hitzak irakurtzen joko	384.300
Deustuko Unibertsitatea	Halo! Hasi irakurtzen orain	2.500.000
Donostiako komunikabideak	Eskola Publikoaren gehigarria	192.150
Editorial Iparragirre	Deia egunkaria	2.500.000
Eta kitto! Euskara Elkartea	Euskarazko irakurzaletasuna	140.744
Europa Press	Berriak euskaraz	2.500.000
Euskerazaintza	Urteko jarduera	50.000
Guezan ba! Gazte Taldea	Karrika antzerki eskola	61.320
Hori-Hori	Bizkaierazko aldizkari berria	2.500.000
Ikas.Bi	Toboggan	2.500.000
Irakasle eskola	Euskarazko soinudun ipuinak	2.380.000
Jardun Kultur Elkartea	Amodiozko gutunen lehiaketa	126.130
Nafarroako Ikastolen Elk.	JUUL 2000-proiektua	894.000
Ttakun Kultur Elkartea	Irakurtezin gazte aldizkaria	51.941
Zorrontza Euskara Elkartea	Arkalaz aldizkaria	673.313

C  
M  
U  
L  
T  
Z  
O  
A

## D MULTZOA: Bestelako egitarauak.

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
...eta kitto! Euskara Elk.	Bestelako egitarauak	436.207
Arrasate Euskaldun Dezagun	Gazte saila	186.600
AEK	Itaunka. Mahai jokoa	2.167.146
Arabako Ikastolen Elk.	Araba euskaraz 2000. Omenal.	1.397.500
Arte Librea Elkartea	Euskal Erroa	130.000
Artez Euskara Zerbitzua	Euskaldunon gida eta p. k.	3.000.000
Ikertze	Lanbideko ipuinak	244.400
Bagera Elkartea	Ohiko jarduna	169.020
Bagera Elkartea	Mintzalaguna	145.000
Baikara, Gipuzkoako Guras.	Eskolak E. H. euskaraz ezag.	3.000.000
Barbaro Elkartea	Haur antzerki proiektua	68.000
Bernat Etxepare Kolegioa	Haurrentzako euskarazko kom.	32.275
Bizkaiko Ikastolen Elk.	Euskaraz bizi	1.143.419
Bizkaiko Ikastolen Elk.	Pare-jokoa	359.250
Bizkaiko Ikastolen Elk.	Puzzlea	349.500
Bizkaiko Ikastolen Elk.	Subil.Euskal Kult. ezagutzen	495.000
Bizkaiko Ikastolen Elk.	Umeen hizkuntza gaitasuna	1.192.951
Bizkaiko Ikastolen Elk.	Kili-kili aldizkariaren bideraga	1.162.850
Bizkaiko Ikastolen Elk.	Joko eta materialen katalogo	597.350
Bizkaiko Ikastolen Elk.	XX. mendeko bertso antologia	146.250
Bizkaiko Ikastolen Elk.	Ibilaldia 2000: Omenaldia	240.842
Bizkaiko Ikastolen Elk.	Euskara aisian	310.625
Gipuzkoako Industri-Inj.	Taulak euskaraz	1.488.750
EDE Fundazioa	Astaldi hezigarria eta euskara	1.869.100
EDE Fundazioa	Euskarazko datu basea	295.800
Egunkaria	10.urteurrena	3.000.000
Eihartzea Kultur Etxea	Urteko ohiko jarduna	110.500
Euskal Konfederazioa	Euskararen transmisioa	375.000
Arrasateko Euskalan Elk.	Euskara lan munduan	35.400
Euskalerriko Eskautak Bizk.	Euskaraz bizi. 2000	135.250
Euskara Añanan Elk.	Euskararen aldeko kanpaina	140.000
Galtzaundi Euskara Taldea	Urteko jarduera eta egitasmoak	1.100.250
Gasteizko Trikitixa Eskola	Euskara eta musika	200.000
Geu elkartea	Ohiko jarduna	214.162
Goiena	Debagoienako egunk. lank.	2.171.000
Goierriko Euskal Eskola	Hainbat jarduera	100.000
Guezan ba! Gazte Taldea	Udalekuak 2000	77.000
Hitzaro Elkartea Kulturala	Txirristi-Mirristi udaleku irekiak	526.500
Ikas-Bi	Azkarateko zentroa	3.000.000
Komunikazio biziagoa	Euskal lokuzioak	887.404
Lagunak Elkartea	Xiberoak Eraik beza botza	1.000.000
Oarso Komunikabideak	Gurean eskualdea berri	1.160.000
Sabino Arana Kultur Elk.	Mugarik gabe euskaraz	1.650.000
Euskal Soziolinguistika, SEI	Sinposiuma	2.166.356
Euskal Soziolinguistika, SEI	Euskararen erabileraren IV neurk.	791.250
Ttakun Kultur Elkartea	Ikastaroak	497.000
Ttakun Kultur Elkartea	Jalgi Kafe Antzokia	883.286
Txatxilipurdi	Eskola eta aisialdia	1.765.472
Txatxilipurdi	Ludoteka	1.657.992
Udako Euskal Unibertsitatea	UEUren 28. Ikastaldiak	2.250.000
Urtxintxa Atsedendialdi Eskola	Heziketa astialdian	923.000
Uztarri Kultur Taldea	Ume euskaltegiak	1.470.000
Basauriko Xibiri	Bizkaian euskaraz bizi	510.000

D  
M  
U  
L  
T  
Z  
O  
A

**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso edo ezaguneri bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza**

Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16  
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

e-posta: .....

E  
M  
U  
L  
T  
Z  
O  
A

**E MULTZOA:** Zabalkunde handiko biltzarretan, jardunaldietan eta ospakizun berezietan euskararen presentzia bermatzeko ekimenak.

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
Arabako Ikastolen Elk.	VII. jardun pedagogikoak	1.043.000
Aurten Bai Fundazioa	EBLUL-eko ordezkariak	1.139.031
Bagera	Euskararen erabilera neurtzen	850.000
Euskaraz bizitzeko hitz.	Hitzarmena	878.773
Mendebalde Elkartea	Jardunaldiak	871.943